2014ko irailean, Ziburuko herriak eskola erritmoen erreforma eta 4,5 eguneko eskola astearen antolaketa eman zuen indarrean. Horri arrapostua emateko Lurraldeko Heziketa Proiektua prestatu du, hezkuntza kodearen L. 551-1 artikulua dioenari jarraikiz:

«Lurraldeko heziketa proiektuaren xede nagusia ikasleen aisialdian kultura eta kirol jardunetan aritzeko bai eta informazio eta komunikazio teknologia berriak eskura ukateko aukera berdina ukan dezaten laguntzea da.».

Lurraldeko Heziketa Proiektua (LHP) Hezkuntza Ministerioaren Departamendu Zerbitzuen Zuzendaritzak (HMDZZ-DSDEN), Gizarte Kohesiorako Departamendu Zuzendaritzak (GKDZ-DDCS) eta Familia Laguntza Kutxak (FLK-CAF) baietsi dute eta haur bakoitzari, eskolaldi aitzinetik, bitartean eta ondoren, kalitatezko heziketa ibilbide koherentea proposatzeko helburua du, eta horretarako antolatzen du, bakoitzaren eskumenak zainduz, heziketa aldien elkarren osagarritasuna.

2018an, 4 eguneko eskola atera itzultzearekin, kolektibitateek astezken plan labeldun LHPa atxikitzeak aukera ukan zuten, eta halatan, eskolaldiaren eta asteazkenetako eskolaldi ingurukoaren arteko heziketa jarraitasuna bermatzeko.

Horren harira, Ziburuko Herriak 2018/2021 eta 2021/2024 aldietarako LHPa ezarri du. Dokumentu honek 2024/2027 aldia du gidatzen.

Dokumentu honek udalaren engaiamendua, lehentasunak eta printzipioak gauzatzen ditu. Egiten dituen zentzua zehazten du eta gauatzeko behar dituen orientabideak, bitartekoak eta partzuegoak ezartzen ditu. Hautetsiek nahi duten haurren eta gazteen aldeko politikarekin loturik da eta FLKrekin sinaturiko Lurraldeko Hitzarmen Orokorren barnean da kokatua.

Urraspide honek erraztu behar du eskolaldiaren osagarri diren eskolaldi inguruko jardunen eskaintza prestatzea, bai eta egun dugun eskaintza koherenteago egiten, haurren onerako. Heziketa jarduera horiek guztiek haurraren kultura eta kirol garapenerako aukera eman behar dute; biharko herritarra bilakatzera eraman behar dute, autonomo eta arduratsu, bizitza kolektibo, laiko eta demokratikoan parte hartzeko tresnak emanen dizkion pentsamendu kritikoa garaturik.

1. Egoera

1.1. Herri testuingurua

Ziburuko herriak 5856 biztanle ditu eta ingurumen eta ondare bikain-bikainak ditu eta nortasun azkarra.

Hainbat urtetik hona ari da herria haur txikien, haurren eta gazteen aldeko politika garatzen, hezkuntza, haurtzaroa, gazteria eta kirola zerbitzuak eta haurtzaindegi zerbitzuak antolaturik eta hainbat partzuerrekin ere aritzen da.

1.2. Eremua

Eskola eskaintza

Ziburuko herriak heziketa eskaintza anitza du, lehen mailako 3 ikastetxe eta bigarren mailako 2 ikastetxe baititu herrian:

- Marinela lehen mailako eskola publikoa, Marinela auzoan
- Kaskarotenea ikastola, lehen mailako eskola pribatua (euskarazko murgiltze eskola) Gurutze Gorriaren auzoan kokatua
- Saint Michel lehen mailako eskola pribatua (ikastetxe katolikoa) Ravel kaian kokatua
- Piarres Larzabal euskarazko kolegioa, Zokoa auzoan kokatua
- Itsas lanbide lizeoa, Zokoa auzoan kokatua.

	Marinela Lehen mailako eskola publikoa	Kaskarotenea Ikastola lehen mailako eskola pribatua	Saint Michel lehen mailako eskola pribatua
Ama eskolako ikasle kopurua	78	30	39
Lehen mailako ikasleen kopurua	110	41	63
Orotara	187	71	102
Euskarazko ikasketak egiten dituzten ikasleen %	% 55.3	% 100	% 60.8

Harrera eta zerbitzuak – haur txikiak – haurrak eta gazteak

0-3 urtekoentzat

Marie Fleuret harrera-anitza, haurtzaindegitik eskolarako zaldain proiektu batekin, haurraren eskolaratzea laguntzeko

«A petits pas» haur txikien sarea, Donibane Lohizune, Ziburu, Ahetze, Getaria, Azkaine eta Arbona herriak biltzen dituen herriarteko haur txikien zerbitzu sarea.

Ttuku ttuku euskarazko etxeko haurtzainen etxea, 4 etxe haurtzainekin eta 7 etxe haurtzain independenterekin

3-25 urtekoentzat

Eskolaldi inguruko harrera

Eskolaz kanpoko aisialdi harrera 3-17 urtekoentzat, eskaintza bereziarekin nerabeentzat

AFPA siglaz ezagun den helduen lanbide formakuntzarako agentziaren harlekua gazteen formakuntzarako: 16/18 urtekoentzat

Partzuergo bat AGIR ABCD elkartearekin herriko kolegio ikasle gazteei etxeko lanak egiten laguntzea plantan emateko

«Avance, on t'avance» baliabidea, gazteei AIGA agiria edota gidabaimena eskuratzen, bai eta beste proiektuetan ere laguntzeko.

Kirol eskaintza

Udal kirol hezitzaile bat aritzen da herriko lehen mailako eskola orotan

Kirolanitzak asteazken goiz orotan, eskola garaian, 5-8 urtekoentzat

Opor kirolerako txartelak 9-11 urtekoentzat

Urte osoan zehar herriak edota elkarteek herrian proposaturiko kirol ekitaldiak.

Kultura eskaintza

Kultura, Ondarea eta Elkarrekin bizitzaren Zerbitzuak daraman kultura politika, eskola haurrentzat bereziki antolaturiko ikuskizun eta bitartekaritza aldiekin eta sasoirako egitarauarekin

Baserrialdeetako Musika Zentroak eskoletan aritzea (irakasleak musika ikasketaren alorrean laguntzea eta herrian noiztik noizera plantan emaniko proiektuak: eskoletako Olentzero, Ihauteria, haurren abesbatza)

Udal mediateka, Larrungo mediateken irakurketa publikoaren sarean sarturik.

Elkarrekin egitura

Herriak berrogeita hamar bat elkarrekin dituen kirol, kultura, aisialdi, animazio, gizarte eta gizaldekoko alorretan ari direnak.

Herriak diruzko laguntza (dirulaguntzak) eta laguntza materiala (lokalak eta materiala uztea) ematen die elkarrekin.

Partzuerrak

Erakunde partzuerrak: Hezkuntza Ministerioaren ikuskaria (IEN), FLK-CAF, GKDZ-DDCS, Departamendua, Euskal Elkargoa, Arte eta Historiako Herrialdea, tokiko misioa, AFPA agentzia, Bil Ta Garbi, etxe hondakinen sindikatu tratatzailea, elikaduraren behar gabeko xahutzeaz eta lurbeltza egitearen alde ohartarazteko

Beste partzuerrak: IEZI Euskal Itsasbazterra: ingurumenaz ohartarazteko animazio egitarau bat proposatzen du

Agir ABCD: kolegioko ikasleen aldeko eskola laguntza proposatzen du

Handiressources64: udal langileak gizarteratze gaietaz formatzeko.

Herri lokal eta hornikuntzak



- 1: Marinela lehen mailako eskola publikoa
- 2: Kaskarotenea Ikastola murgiltze eskola pribatua
- 3: St Michel eskola pribatua
- 4: Piarres Larzabal euskarazko kolegioa eta Itsas Lanbide Lizeoa
- 5: Marie Fleuret harrera-anitza
- 6: Ttuku ttuku euskarazko etxeko haurtzainen etxea
- 7: Hondartza
- 8: Elkarteen etxea
- 9: Udal estadioa – kirol hornikuntzak eta jostalekuak
- 10: Elkarteen etxea – Landaburu Toki
- 11: Erabilera anitzetarako lekua

2. LHPren jokagaiak eta helburuak

2.1. Heziketa helburua

LHPren helburua eskolen proiektuen eta hurrei eskolaldietan proposatzen zaizkien jardunen arteko heziketa jarraitasuna bermatuko duten lurraldearen baliabideak baliaraztea da.

Halatan, bada, jardunak antolatzeke aukera eman behar du, Hezkuntza Ministerioaren zerbitzu publikoa luzatu eta osatuz.

Haurra egun osoan zehar, leku eta une desberdinetan laguntzeak eskatzen du eragile zenbaiten esku hartzeak antolatu beharra, nor bakoitzaren behar eta erritmoen begiramenez osa eta aberastu daitezzen.

Ziburuko Herriaren heziketa proiektuak gazteak etorkizunean ukanen dituzten arduretarako prestatzeko eta heldu arduratsuak bilakatzeko antolatzen ditu bere jardunak, herritartasun engaiatua bermatuz «ongi bizitzea» eta «elkarbizitza» lortzeko baldintza baita.

Harrerak antolatuz, herriak ziburuar haur eta gazteak biharko herritarrek bilakatzen lagundu nahi ditu:

- Beren gorputza eta osasuna zaintzen dituztenak;
- Lankidetzaz eta elkartasunez egin talde proiektuen eragileak;
- Sortzaileak eta pentsamendu kritikoa garatzeko gai direnak;
- Duten kultura eta natura ondareaz ohartuak eta mundura ere zabalik;
- Ingurumena zaintzen dutenak, toki mailako et mundu mailako jokagaietaz ohartuak.

2.2. 2024/2027ko LHPren helburu orokor eta eragiketakoak

Heziketa proiektuaren helburuetaz haratago, honako asmo hauek ere ditu lurraldeko heziketa proiektuak:

Helburu orokorrak	Eragiketa helburuak
Guraso jarduna sostengatzea	Guraso lotura azkartzea. Bertako familiak biltzea guraso jardunari buruzko topaketa eta solasaldi berriak bultzatzeko. Lurraldean bala daitezkeen eragileekin partzuergoak garatzea.
Orori eskaintzea harrera	Eskolekiko lotura garatu eta azkartzea eskolaldi inguruko harleketan haur guztiak hartzea bultzatzeko. Behar bereziak dituzten haurren gizarteratzeari eta hartzeari buruzko formakuntza ematea. Haurra harrera aldietan laguntzeko, senideekiko harremana eta lotura bultzatzea.
Euskararen erabilera garatzea	Euskararen erabilera eta aditza laguntzen duten publikoentzako proiektuak garatzea. Langileen euskara formakuntza laguntzea. Aisialdi harlekuan murgiltze harrera baliabidea azkartzea eta jakitera ematea.

Ekologia trantsizioaren alde aritzea	Garapen iraunkorrerako heziketa adin txikienetik laguntzea. Ikasleentzako ohartarazte animazioak areagotzea. Ekologia trantsizioarekin loturiko proiektuen ekintza kolektiboak sustatu eta laguntzea.
Haur txikientzako harlekuaren eta eskolaren arteko trantsizioa bultzatzea	Haur txikien harlekuaren eta eskolaren arteko koordinazio tarteak areagotzea. Hautzaindegia eta eskola publikoaren arteko zaldain ikasgela plantan ematea lantzea.
Eskola proiektuekiko eta eskolaldi zerbitzuekiko lotura azkartzea	Irakasle taldeen eta animazio taldeen arteko koordinazioa areagotzea. Eskola proiektuaren prestaketaren aitzineko solasak bultzatzea.

Helburu horiei erantzuteko obratuko diren ekintzek aukera emanen dute ere herriko haurrek beregana ditzaten eranskinean datorren heziketa proiektuan aipatu eta zehazturiko gaitasunak.

LHPren helburuak honako alor hauetan proiektu eta jardunak gauzatuz beteko dira:

- Herritartasuna, ingurumena,
- Kirola, ariketa fisikoak eta osasun prebentzioa,
- Arte eta kultura hastapen jardunak,
- Zientzia eta teknikako ezagutza, digitalaren erabilera,
- Euskara eta euskal kultura,

2.3. Animazio eta ikasketa metodoak

Proiektuak gai zentral baten inguruan eraikitzen dira, lekuan ikusitakoaren arabera eta egungoarekin eta eskola proiektuekin loturik zehaztua, edo agerturiko beharrei erantzuteko.

Lantaldeek josteta erabiltzen dute nagusiki ikaste bide gisa; halatan, jostetak heziketa helburua du.

Proposaturiko jarduerak haurren behar eta erritmo bereziak hartzen dituzte kontuan, duten adinaren arabera, eta behar dituzten lasai aldiak faboratzen dituzte.

Haurrek libreki har dezakete parte jarduera horietan; ez dira baitezpadakoak. Halarik ere, zenbait jardueren antolatzeke, haur guztien parte hartzea behar da. Halakoetan, senideei horren berri ematen zaie haurrak jardunak dirauen bitarte osoan hor izan daitezen.

PJO-APC: Pedagogia Jardun Osagarriak

Ikasten zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko irakaste aldia da. 36 oren osagarri horiek irakasleek eskaintzen dituzte eguerdiko atsedenaldian edo arratsean.

Aldi horien antolakuntza irakasle lantaldeek dute egiten.

AKH-EAC: Arte eta Kultura Heziketa proiektuak

Herria arte, kultura, zientzia eta kirol heziketako programa bat plantan ematen saiatzen da, herriak ikastetxeentzat, bai eta eskolaldi ingurukoentzat eta haur txikienentzat egin proposamen guztiak bilduz.

Programa horretan, hainbat proiektu mota izan litezke:

- Herriaren partzuer diren egiturek asmatu eta proposaturiko ibilbideak (adib.: IEZI, AHH-PAH)
- Herriak asmatu ibilbideak, adin tarte oso batentzat, urtero berdinak

Adibideak: «Irakurketaren ezagutzera» ibilbidea ama eskolako ikasgela ororentzat

Musika irakaskuntzako ibilbide bat, CMR deiturikoekin elkarlanean, lehen mailako laugarren eta bosgarren ikasgela ororentzat

- Herriak asmatu ibilbideak, irakasleen hautura utziak, eta edukia, urtero, egungo egoeraren arabera eta kultura egitarauaren arabera aldatuko zaiena

Adibideak: Ibilbide bat edo batzuk urtezaharreko besten harira (hautaturiko gaiaren eta egitarauaren arabera)

Egitarau hori 2024/2025 eskola sartzetik goiti gauzatuko da.

3. LHPren helburuak gauzatzeko bitartekoak

3.1. Xede diren jendeak eta eskola

LHP honek Marinela eskola publikoko ikasleei eta asteazkenetako aisialdi harreraren harira proposaturiko eskolaldi inguruko jarduerak gidatzen ditu.

3.2. Eskolaldiaren antolaketa

Herria 2018az geroztik ari da lau eguneko astea antolatzen.

Eskola ziklo oro gunee berean biltzeak, lehen hiru gunetan barreiaturik zirelarik, irakaste ordutegiak bateratzeko aukera eman digu 2022ko eskola sartzeaz geroztik.

Marinela eskola publikoa:

	7:45	8:30	12:00	13:45	16:15	18:00
Astelehena	Eskolaldi inguruko harrera	Irakaste aldia	Eguerdiko atsedenaldia	Irakaste aldia	Eskolatik jalgitzea	Eskolaldi inguruko harrera
Asteartea						
Asteazkena	Asteazkeneko eskolaldi inguruko harrera					
Osteguna	Eskolaldi inguruko harrera	Irakaste aldia	Eguerdiko atsedenaldia	Irakaste aldia	Eskolatik jalgitzea	Eskolaldi inguruko harrera
Ostirala						

Herria familien antolaketa errazten duen eskaintza plantan ematera engaiatzen da eta, horren egiteko, goizean, ikaste aldia hasi aitzin, eta arratsean, ikaste aldiaren ondoren, harrera aldiak proposatzen ditu, urrik. Nolanahi ere den, izen emate dosierra behar da horretarako.

Eguerdiko atsedena ikasleei zerbitzatzen zaien apairua familiaren diru sarreraren arabera erabaki tarifa batez kobratzen da.

Aldi horietan, kirol, arte, irakurketa edo hainbat gaitako jarduerak proposatzen zaizkie hurrei, josteta giroan ikas dezaten. Jarduera horiek eskola publikoaren lokaletan egiten dira, proposatzen zaien jardun motara egokituriko lekuetan, haurrak segurtasunez ari daitezen. Haurren zaintza zaintzaile kopuruaren araua betetzen du:

- Animatezaile bat 10 ama eskolako hurreko
- Animatezaile bat lehen mailako 14 hurreko.

Kaskarotenea Ikastola murgilpen eskola pribatua:

	7:50	8:45	11:45	13:30	16:30	17:45
Astelehena	Eskolaldi inguruko harrera	Irakaste aldia	Eguerdiko atsedena	Irakaste aldia	Eskolatik jalgitzea	Eskolaldi inguruko harrera
Asteartea						
Osteguna						
Ostirala						

St Michel eskola pribatua:

	7:30	8:30	12:00	13:30	16:00	18:30
Astelehena	Eskolaldi inguruko harrera	Irakaste aldia	Eguerdiko atsedena	Irakaste aldia	Eskolatik jalgitzea	Eskolaldi inguruko harrera
Asteartea						
Osteguna						
Ostirala						

Ostatatze Gabeko Aisialdi Harlekua (OGAH-ALSH):

OGAH zentroak Asteazken Plan labela du eta eskolari txanda hartzen dio asteazkenetako eskolaldi inguruko aldiari. Harrera aldia eskola egunetan proposatzen denaren berdina da, hau da, 7:45etatik 18:00etara.

Zerbitzu horren prezioa familien diru sarreraren arabera da (FLKren familia koizientea).

Haurrak eskolara sartzearekin batera hartzen dira egun osorako edo egun erdirako, bazkariarekin edo gabe, familien behar eta antolakuntzei ahal beste erantzuteko.

Arta berezia ematen zaio txikienei hartzei. Atsedena aldi bat proposatzen zaie, loaldi bat txikieneztat egokitu logela batean, eta aldi lasai bat besteei, bazkariaren ondoren.

Proposatzen zaizkien jarduerak animazio taldeak prestatzen ditu prestatze bilkura batean, eta hartzen diren haurren behar eta nahien arabera dira. Hartzen diren haurren berezitasunetara egokituriko lokaletan egiten dira (ama eskola eta lehen maila) adin bakoitzeko hurrei dituzten behar berezien arabera aritzeko aukera emateko (atsedena aldia, altzariak eta jostailu eta josteta egokituak...).

Haurren zaintza zaintzaile kopuruaren araua betetzen du:

- Animatezaile bat 10 ama eskolako hurreko
- Animatezaile bat lehen mailako 14 hurreko.

3.3. Animaziorako hezitzaile lantaldea eta kanpoko esku hartzaileak

Herriak Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodearen testuak hartzen ditu kontuan, Adingabeen Heziketa izaerako Talde Harreren antolaketa arautzen baitute testu horiek haurrekin aritzen diren esku hartzaileen kopuru eta kalifikazioei dagokienean.

Udal heziketa lantaldea honela osatua da:

- Koordinatzaile bat: GHHKLA OA-BPJEPS LTP 1,
- Ostatatze Gabeko Aisialdi Harlekuaren zuzendaritza lantalde bat: GHHKED-DEJEPS 1 Lurralde eta Sareen Proiektuen Garapena, ZIGA-BAFD 1
- 10 animatzaile iraunkor: GHHKLA OA-BPJEPS LTP 1, EJS 1, 7 AIGA, ikasketan den GHHKLA OA-BPJEPS LTP 1,
- 3 ABLA-ATSEM, Haur txikien LGA-CAP diplomadunak,
- 6 zerbitzu langile, jantoki zerbitzurako eta lokalen garbitzeko.

Halatan, bada, lantaldeak 22 pertsona ditu, haietan 15 funtzionario.

Astero, animazio lantalde osoak prestaketa eta arautze aldi bat ukanen du udal koordinatzailearekin batera.

Pedagogia lantaldeak harrera aldi bakoitzaren aitzinetik (eskola oporraldi bakoitzaren aitzinetik) aritzen dira erabiliko dituzten pedagogia helburuak zehazten eta proposatuko dituzten animazio proiektuak eta jarduera egitarauak prestatzen.

Kanpoko esku hartzaileak ekar litezke jarduera bereziak gidatzeko.

Indarrean diren arauak eta araudiak kontuan hartuz, diploma baldintzak ezar litezke.

3.4. Formakuntza

Herriak langileen formakuntzari nahi dio garrantzia eman.

Bide horretatik, zenbait urrats egin dira eta LHParen iraunaldi osoan zehar luzatuko dira:

- Euskaraz Josta, euskarazko kalitatezko harrera egiteko labelizatze baliabidea, haurrak eta gazteak euskaraz ari daitezen laguntzen duena: Herriak hitzarmen bat sinatu du Euskal Elkargoarekin eskolaldi inguruko eta kanpoko aisialdi harreretan murgiltze harrera egiteko. Hitzarmen horrek zerbitzuko langileak pixkanaka formatzen joatea aurreikusten du, besteak beste.
- Gizarteratzea: zerbitzua «Handi Ressources 64» sailarekin aritzen da elkarlanean zerbitzuko langileei ahalmen urritasunen bat duten haurren harrerarako laguntza eta formakuntza ematen. Murgiltze aldiak «Elgarekin» aisialdi zentroan, bai eta jokamoldeen azterketak ere proposatzen zaizkie horren harira.
- Lehen sokorriak (PSC1) eta bainu aldiak zaintzea: adingabeekin aritzen diren langile guztiek jasotzen dute, urtero, lehen sokorrietarako PSC1 formakuntza (harlekuen jantokietako langileak, abla-atsem, animatzaileak eta zuzendariak). Lantaldearen profilaren arabera, bainu zaintzaile brebeta ere proposatzen da formakuntza berri gisa edo jadanik eginikoa eguneratzeko.

- Langile bat esperientziaz ikasirikoaren balidatzeko bidean da, Gazteriaren, Herri Hezkuntzaren eta Kirolaren Lanbide Agiria Ororentzako Aisialdia (BPJEPS Loisirs Tous Publics) deituriko agiria eskuratzeko.
- LFPNZ-CNFPT zentroak eta Departamenduaren Gazteria, Engaiamendua eta Kirol Zerbitzuak (SDJES) proposaturiko hainbat formakuntza egiten dituzte langileek urtean zehar, hala nola:
 - o Elkarbizitza eta haurren arteko gatazken arautzea
 - o Haurren arteko jazarpena: hezitzaile profesional gisa aritzea
 - o Lanbide harremana eta komunikazioa
 - o Eskolako, eskola inguruko eta eskolaz kanpoko indarkeria karguan hartzea.

3.5. Partekaturiko lokalak

Eskolaldi inguruko jarduerak Marinela eskolaren lokaletan egiten dira eskola egunetan eta asteazkenetan. Zenbait ikasgela eskolaldi inguruko harrerekin partekatzen dira, bereziki ama eskola mailako ikasgelak, txikienek erreferenteak ukan ditzaten eta hornikuntza eta altzari egokituak eskaintzeko.

Bada nagusiki eskolaldi inguruko jardunetarako den gela bat, hala proposaturiko jarduerak egiteko nola lantaldeek jarduera horiek presta ditzaten edo bil daitezten eta lan egin dezaten bertan.

Pedagogia materiala ere partekatua da.

Azpiegiturek eskaini aukeren arabera, inguruetan ere antola litezke jarduerak, 1.2 puntuan aurkezturiko hornikuntzetan.

Lekualdaketa horietako batzuk oinez egin litezke, haurren ahaletara egokituriko izariko ibilaldiak eginez eta haurren segurtasuna bermatuz (Gazteriaren, Engaiamenduaren eta Kirolen Departamendu Zerbitzuak lekualdaketetarako egin aholkuak eta araudia betez).

Garraio sozietate bati eman dio Herriak ibilbide luzeagoak egitearen ardura. Halako ibilbideetan haurrak zaintzeko pedagogia erabakiak hartu dituzte lantaldeek adingabeen segurtasuna bermatzeko.

3.6. Familiekiko komunikazioa

Eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko harreretan izena emateko dosierra bete behar dute familiek beren haur(ar)ren izena emateko. Dokumentu hori gabeko haurrik ez dute pedagogia lantaldeek beren gain hartuko.

Herriak familia atari bat du; informazioa hedatzeko gune digitala da, bai eta haur txiki eta gazteentzat proposatzen dituen zerbitzuetara izena emateko ere.

Zerbitzu eskaintza horien harira proposaturiko jarduera egitarauak jardute aldi bakoitza hasi aitzin ematen dira jakitera:

- Familia atarian, (<https://ciboure.portail-familles.app/>)
- Herriko eskolen sargian kokaturiko Hezkuntza, Haurtzarora, Gazteria eta Kirolak Zerbitzuaren informazio tauletan.
- Lehen mailako eskoletako ikasleen liburu zorroetan banaturik
- Ziburu Herriaren webgunean,

Familiei ezartzen zaizkien tarifak 6 tartetan dira banaturik, familien familia koizientearen arabera (Pirinio Atlantikoetako Familia Laguntza Kutxaren irizpideei jarraikiz).

3.7. Irakasleekiko komunikazioa

Sartze bilkura bat antolatzen dute urtero hautetsiek eta hezkuntza, haurtzarora, gazteria eta kirolak zerbitzuen arduradunek herriko lehen mailako hiru ikastetxeetako zuzendariekin. Urterako lan ingurunea ezartzeko eta garatuko diren proiektuak aipatzeko aukera da hor.

Ikasturte osoan zehar ere egiten dituzte erregularki bilkurak zerbitzuen arduradunek eskola bakoitzaren zuzendariarekin. Koordinazio bilkura horietan, egiten ari diren proiektuen etapa bakoitzean, puntua egiten da.

4. Gidaritza eta koordinazioa

4.1. Gidaritza egitura

Gidaritza batzordea:

- Auzapeza
- Hezkuntza, Haurtzarora eta Gazteriaren ardura duen lehen auzapezordea
- Haur txikien ardura duen udal hautetsia
- Hezkuntza eta Gazteria batzordekide diren herri kontseilariak
- Zerbitzuen zuzendari nagusia
- Hezkuntza, haurtzarora-gazteria-kirolak, kultura-ondarea-elkarte bizitza zerbitzuen arduradunak
- Hezkuntza Ministerioaren ikuskaria
- FLK aholkulari teknikoa
- Gazteriaren, Engaiamenduaren eta kirolen Departamendu Zuzendaritza
- Eskolen zuzendariak
- OGAHren zuzendaria
- Animatzaileen ordezkari bat
- ABLA-ATSEM bat
- Gurasoen ordezkariak.

LHParen hautetsi erreferentea: Leire LARRASA and. (Hezkuntza, Haurtzaro, gazteria eta kirolaren ardura duen lehen auzapezordea)

LHPren teknikari erreferentea: Karine LUBERRIAGA and. (Hezkuntza-Haurtzarora-Gazteria-Kirolak Zerbitzuaren arduraduna) - k.luberriaga@mairiedeciboure.com

Helbidea: Ziburuko herriko etxea – Camille Jullian plaza 7, 64500 ZIBURU

Telefonoa: 05 59 47 26 06 /

Helbide elektronikoa: mairie@mairiedeciboure.com

Batzorde teknikoa:

- Zerbitzuen zuzendari nagusia
- Hezkuntza, Haurtzaro, gazteria eta kirolaren ardura duen lehen auzapezordea
- Haur txikien ardura duen herri kontseilaria
- Hezkuntza Ministerioaren ikuskaria
- Hezkuntza, haurtzarora-gazteria-kirolak, kultura-ondarea-elkarte bizitza zerbitzuen arduradunak

- Eskolen zuzendariak
- OGAHren zuzendaria
- Animatzaileen ordezkari bat
- Partzuerren ordezkariak.

4.2. Ebaluazio bideak: aldizkakotasuna, adierazleak

Proiektua hiru urtetarako da eta urtero balioztatu behar da, ikasturtea bururatzean.

Aldizkakotasuna:

Urtero egingen da antolakuntza atal osoaren gaineko balioztapen bat.

Horrekin batera, haurrei eta irakasle taldeei galdetuko zaie.

Ebaluazio bideak:

LHParen ebaluazio egokia egiten dela bermatzeko, galdetegiak igorriko zaizkie gurasoei, irakasleei, eskola zuzendariei eta haurrei.

Gero, azterketa elementuak gidaritza batzordeari ematen zaizkio ezagutzera aldaketak proposa ditzan.

Hautatu diren adierazleak:

Adierazle kuantitatiboak:

- Jardunetan parte hartu duten haurren kopurua,
- Hastapen eta lehen ezagutzako jarduera berrien kopurua,
- Animazio proiektuen kopurua.

Adierazle kualitatiboak:

- Haurrak proposatu zaizkien jarduera eta proiektuetan zenbateraino sartu diren,
- Plantan eman diren proiektuek haurren ikasketetan ukan duten eragina,
- Tokiko eragileekin eta heziketa eragileekiko partzuergoaren kalitatea.

LABURPENA

Lurraldeko Heziketa Proiektuaren harira, Herriak heziketa ibilbide koherentea eskaini nahi die herriko eskoletan diren ikasleei.

Eskolaldiaren eta eskolaldi inguruko aldiaren arteko osagarritasuna errazteko bitartekoak identifikatu eta eman dira plantan.

Eskola, familia, heziketaren, haurtzaroaren eta gazteriaren eragileak, denak aritu behar dira elkarlanean haur eta gazte bakoitza hala berekiko nola gizartean lora dadin laguntzeko.

Ziburun, otsailaren 21an
Auzapeza,
Eneko ALDANA-DOUAT

